

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LUZURIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko aldiari ordaintzeko moduan jartzea 2019ko ordainagiriak

Behin eginik Luzuriagan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2019ko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertze eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Luzuriagako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan azertu ahal izango dute espedienteak.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko epean kobratzeko aldia 2020ko apirilaren 7tik maiatzaren 7ra artekoa da, egun biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak 2020ko maiatzaren 7an kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 8:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Luzuriagako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Luzuriaga, 2020ko martxoaren 5a

Lehendakaria

JUAN CARLOS ARRIAGA GARCÍA DE ALBÉNIZ